

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Kultur Etxea Tokiko Erakunde Autonomoa****San Lorentzoko azokarako postuak eta txosnak esleitzeko deialdia eta oinarri arautzaileak.**

Getxoko Kultur Etxeak San Lorentzoko nekazaritza azoka antolatuko du eta baldintzak ezarri ditu azokako postuak eta txosnak hautatzeko.

Azokaren bidez Euskal Herriko tokiko merkatuetan tradizioz saltzen diren produktuak aditzera eman nahi dira.

Azoka bertan dauden arauen mende egongo da, baita Getxoko Udaleko organo eskudunek azokari buruz ezar ditzaketen beste arau batzuen mende ere.

San Lorentzoko azoka 2022ko abuztuaren 10ean egingo da eta saltzeko ordutegia 10:00etatik 14:30era izango da.

**1. Parte hartzeko baldintzak**

Azokan parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute Euskal Herriko tokiko merkatuetan tradizioz saltzen diren produktuei lotutako nekazaritza edo elikadura jardueraren bat garatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek.

Nahitaez, ikusgai edo salgai egongo diren produktu guztiak egin edo ekoitzi beharko dira, eta hala badagokio, artisau bitartekoen bidez prozesatu behar izango dira. Saltzaile bakoitzak norberak egindako produktuak soilik izan ditzake, ezin dira industria prozeduren bidez egindako artikulua eta produktuak birsaldu.

**2. Saltzeko modua eta postu kopurua**

San Lorentzoko azokan 60 postu eta bi txosna egongo dira, eta soilik, nekazaritza eta elikadura produktuetara bideratuta egongo dira.

Gehienez ere, produktu bakoitzeko zortzi postu egongo dira, salbu, posturen bat hutsik geratzen bada. Postu bat gordeko da Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Iparraldeko (Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea) lurralde historiko guztietako probintzia bakoitzeko ekoizleentzat edo nekazariarentzat. Postu kopurua alda daiteke bai osasun egoeraren arabera baita azoka kokatzeko espazioaren eskuragarritasunaren arabera ere.

Pertsona fisiko edo juridiko bakoitzak soilik postu edo txosna bat eskuratu ahal izango du. Produktuen arabera, eta aurkeztutako eskaeran emandako azalpenaren arabera, antolakuntzak eskumena izango du hautagaiei bigarren postu bat emateko.

Postuak puntuen arabera esleituko dira, oinarrien 4. puntuan adierazitako balorazio irizpideen arabera. Hala badagokio, itxarote zerrenda egingo da.

**3. Eskaerak**

Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, idazki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaera egiteko eredia [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean eskuratu ahal izango da. Postu bat eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentuak honako hauek dira:

- 1) Eskaera orria (I. Eranskina), behar bezala beteta.
- 2) Jarduera komertziala estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguruia.
- 3) Nekazaritza ustiatzeko txartela.
- 4) Autonomoen azken ordainagiria.
- 5) Osasun erregistroa.
- 6) Manipulazio karneta.



Era berean, modalitate bakoitzean baloratzen diren alderdiak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu behar izango dira (ikusi 4. puntua - «Hautatzeko irizpideak»), baita saltzea aurreikusten diren produktuen zerrenda zehatza ere.

Izena emateko, Getxoko Kultur Etxearen erregistroaren online izapideak bete behar dira, ziurtagiri digitalaren bidez edota 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako beste bitartekoen bidez ([www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)).

Aurkeztutako eskabidea edo atxikitako dokumentazioa osatugabea baldin bada edo zuzen daitekeen akatsen bat baldin badago, eskatzaileari zuzentzeko eskaera egingo zaio gehienez hamar egun baliodunen epean, eskakizunaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita; hala, ohartarazi egingo zaio azaldutakoa egiten ez badu eskabidea bertan behera utzi duela iritziko dela.

Getxoko Kultur Etxeak deialdia ebazteko beharrezko datu edo dokumentu gehigarriak eskatu ahal izango ditu. Programan parte hartzeko eskaera aurkezteak esan nahi du deialdiaren oinarriak onartzen direla.

#### **4. Postu bat eskuratzeko hautatzeko irizpideak (hamar puntu)**

1. Jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edota Iparralden garatzen duten ekoizleak: 2 puntu.
2. Proposamena berezia eta bakarra izatea: 2 puntu.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko produktu ekologiko edo marka babestu kalifikatuak (Eusko Label, Idiazabal Jatorri Izendapena, Bizkaia, Txakoli Jatorri Izendapena, Euskal baserri, -): 1 puntu izendapen bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
4. Arreta euskaraz eta gaztelaniaz ematea: Puntu 1.
5. Postuan genero parekotasuna egotea: Puntu 1.
6. Berrerabilitako/birziklatutako produktuak edota produktu ekologikoak erabiltzen dituzten pertsonak: puntu 1.
7. Gehienez ere puntu bat jasoko dute eskaera egiten duten pertsonak hurrengo baldintzaren bat betetzen badute:
  - Desgaitasuna edo minusbaliotasuna % 33 edo gehiago dutenak: 0,50 puntu.
  - Gizarte ekonomiako forma juridikoak: 0,50 puntu.

Zuzenean hautatuko dira puntu gehien eskuratzen dituzten lehenengo proposamenak, hurrenez hurren, EAeko, Nafarroako eta Iparraldeko probintzietakoak.

Berdinketarik balego, hurrenkera 1), 2), 3), 4), 5), 6) eta 7) irizpideetan eskuratutako puntuen arabera ezarriko da. Berdinketa hautsiko ez balitz, zozketa egingo litzateke.

#### **5. Parte hartzaileak hautatzea**

Izena emateko eta eskatutako dokumentuak aurkezteko epea amaitzen denean, aurkeztutako eskaerak alderatuko dira horien lehenetasun hurrenkera ezartzeko, aurretik aipatutako balorazio irizpideen arabera, puntu gehien eskuratzen dituzten hautagaiei parte hartzeko eskubidea emateko, aurreikusitako postu guztiak bete arte, oinarrietako 2. puntuan ezarritakoarekin bat eginda. Dagokion ebazpena emango da, eta presidentziak onetsiko du.

Eskaerak baloratu ostean, postua esleitu zaien pertsonen zerrenda eta itxarote zerrenda argitaratuko dira. Zerrendak hemen egongo dira eskuragarri: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus).

Baztertutako eskaerak itxarote zerrendan egongo dira, lortu dituzten puntuen arabera ordenatuta. Posturen bat hutsik balego, puntuen eta 2. puntuko irizpideen arabera eskuratuko litzateke. Itxarote zerrendako hainbat eskaeren artean berdinketarik balego, zozketa egingo litzateke.

#### **6. Hautaketa Batzordea**

Kultur Etxeko teknikariek osatuko dute jasotako eskaerak hautatzeko Batzordea.



## 7. Eskubideak eta betebeharrak

Hautatutako pertsonak alde zuzenetik jakinarazi gabe azokara bertaratzen ez badira, zigorra jaso ahal izango dute. Zigorra hurrengo hiru azoketan parte hartzeko debekua izango da. Azokan posturen bat hutsik geratuko balitz, Kultur Etxeak postu hori/ek itxarote zerrendako pertsoneri/erakundeei esleitu ahal izango lieke.

Hautatutako pertsonen dagozkion azokako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte, horretarako aurreikusitako indarreko akordio arautzailearen arabera.

Onartutakoek honako eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

- Eskaeran zehatz mehatz adierazi diren produktuak saltzea.
- Azokan betebeharrak fiskalak zein gizarte segurantzakoak betetzea.
- Ezin dira produktuak birsaldatu.
- Guztiz debekatuta dago artisau bitartekoen bidez egin ez diren produktuak saltzea.
- Ikusgai dauden produktuek arduratzea.
- Produktu guztien prezioa behar bezala adierazita eta ikusgai egon beharko da.
- Erabiltzaileentzako/Bezeroentzako kartel guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira.
- Postua zabalik eta behar bezala zaindu beharko da.
- Eskaera eremuan aurkeztutako produktuen stocka bermatzea.
- Postuak irudi egokia izateaz arduratzea eta hori behar bezala zaintzea.
- Azoka behar bezala egitea zailtzen edo eragozten jarduerak ez egitea.
- Azokako gune eta material komunak zaintzea eta errespetatzea.
- Emandako txokoa eta bere ingurunea saltzaileek garbitu beharko dute, postua jendearentzako irekita ez dagoenean egin beharko da nahitaez, eta hondakinak horretarako jarri diren lekuetan utzi beharko dira, eta birziklatuko dira.
- Antolakuntzak esleitutako tokian postua muntatzea, horretarako beharrezko materialak ekarri beharko dira derrigorrez.
- Postuen barruan zein kanpoan ezin izango dira jarri azokari edo erakustokiari lotuta ez dauden gaiak buruzko kartelak edota pankartak.
- Debekatuta dago materialak postutik kanpo erakustea.
- Ezin izango dira eskaintzak egin: likidazioak, beherapenak, saldoa, 2x1 eta antzekoak.
- Debekatuta dago norberaren musika edota erakartzeko beste edozein soinua.
- Ezin izango da postua utzi adierazitako ordutegia bete arte.

Onartutako pertsonen postua muntatu ahal izango dute goizeko 7:00etatik aurrera eta 10:00ak baino lehen muntatu ahal izango beharko da.

Azokaren guneak ezin izango da ibilgailurik igaro 14:45era arte, betiere antolakuntzaren jarraibideak jarraituta. Postua 15:45ean desmuntatuta egon beharko da.

Kultur Etxeak, bere eskumenak baliatuta, egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izango ditu azoka behar bezala garatzeko, bereziki, ezarritako eskubideak eta betebeharrak betetzen ez direnean. Neurri horien artean, baimendu ez diren, eskaeran adierazi ez diren edota eskaerarekin bat ez datozen produktuak kendu ahal izango ditu. Horrek postua ixtea, azokatik kanpo geratzea eta hurrengo hiru azoketan parte hartzea debekatzea ekarriko du.

Ez dira antolakuntzaren ardurak izango pertsonen eta/edo ondasunen gertatu ahal izan diren edozein motatako istripuak zein kalteak. Antolakuntza ez da arduratuko postuan dauden eta lapurtzen, galtzen edota kaltetzen diren materialez edo objektuek.

Antolakuntzak eskubidea izango du:

- Azokan parte hartzeko eskaera ez onartzeko, eskatzaileak administrazio baldintzak betetzen ez dituela uste badu, edo produktuak eskatutako gutxieneko kalitatea betetzen ez badu.



- Irregularitasunik balego, azokako edozein postu kentzeko.
- Eskatzailea behar bezala egiazta dezakeen arrazoirik izan gabe azokara bertarazten ez bada, hurrengo hiru azoketan parte hartzea debekatzeko.
- Ikusgai dauden postuei eta produktuei argazkiak ateratzea eta filmatzea, argitaratzeko.
- Azokako datak eta ordutegiak aldatzeko.

Kultur Etxeak oinarriak interpretatzeko, dagozkion ebazpen edo jarraibide guztiak emateko, eta horiek, arrazoiak emanda, ondoriorik gabe eta bertan behera uzteko prerrogatiba du.

Eskaera eredia [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean publikatuko da.

Getxon, 2022ko ekainaren 10ean.—Getxoko Kultur Etxeko Presidentea, Irantzu Uriarte Gómez